

KONTZEZIRENTZAT

[Indalezio Bizkarrondo "Bilintx"](#)

Donostia, 1831-1876

Euskara batuan

1/ Kantatzera indar handiko / desio batek narama, / Kontzezi, zuri nahi dizut eman / merezia duzun fama; / gure probintzia Gipuzkoakoan / igualik gabeko dama, / bedeinkatua izan dadila / zu egin zintuen ama.

2/ Zerorrek uste ez zenuela / egon nintzaizun begira, / lehenbizikoan oinetara eta / hurrena berriz gerrira; / oinak dituzu txiki politak, / gustagarriak txit dira, / gerrian berriz eman litzake / kana bat zintak bi jira.

3/ Handik hurrena ipini nizun / erreparoa petxura, / orduantxe bai eman nizula / aingeru baten itxura; / Jaungoikoak berak deitu izan balit / igo nendila zerura, / zure ondotik hara joan beharrak / emango zidan tristura.

4/ Ondoren jarri nintzen denboran / begiratzuz lepora, / bihotzak salto egiten zidan / irten nahian kanpora; / irten eta zuzen, badakit zierto, / joango zen zure kolkora, / nik jakitera nahi zenuela / utziko nion gustura.

5/ Atentzioa begietara / paratu nizun segidan, / ez dakit zierto begiak edo / eguzki berri bi ziren; / ondo ikusi ez nizkizun eta / nola esango dut zer diren, / begiratzun nizun guzian / bista kentzen zenidan.

6/ Ile beltz eder dizdizaria / oparo duzu buruan, / konparatzeko balio duen / zetarik ez da munduan; / trentzak eginik zeneukan dena / erregina baten moduan, / diamantezko koroa eder bat / falta zitzaizun orduan.

7/ Ointxo politak, gerri mehea, / grazia mila petxuan, / lepo biribil dirudiena / egin berria tornuan; / pare gabeko begi argiak, / ile ederra buruan, / zu baino aingeru politagorik / ez da izango zeruan.

8/ Beti ariko naiz Jaunari eskaka / ondo izan zaitezela, / ez dezazula uste nire bizian /
zutaz ahaztuko naizela; / eskumuinak maiz bidaliezazkidazu / orain artean bezala, /
hainbeste egin behar didazu, / penaz hilko naiz bestela.

ZABALA, Antonio (1962). *Indalezio Bizcarrondo, "Bilintx". Bertso ta lan guztiak.*
Donostia: Auspoa Liburutegia 12. (35-37).